



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2020ko OTSAILAREN 26an EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2020ko otsailaren 26an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 15.30etan, Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Concepcion Soria Legua

Bere ezin etorria azaltzen du: Shrabani Aranzabe Pita, Unai Sorarrain Urruzola, Koldobika Jauregi Zinkunegi eta Gillermo Jesus Otegi Zubillaga

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkurako aktan onespena.**
✓ 2019ko abenduaren 26an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Alkizako udal artxiboko dokumentazioa eguneratzeko lanen esleipena, hala bada.**
- 5. 2020 ekitaldirako langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek eginiko gomendioaren onespena, hala bada.**
- 6. Tolosaldeko Atariari 2019 urtean emandako diru-laguntzaren kitapena onestea, hala bada.**
- 7. Tolosaldeko Atari-ak aurkezturiko 2020 ekitaldiko hitzarmenaren onespena, hala bada.**
- 8. Tolosaldeko Atari-ak azterketaren aurrekontuaren onespena, hala bada.**
- 9. Beste batzuk.**
- 10. Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

LEHEN PUNTUA
AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- 2019ko abenduaren 26ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du aurreko bilkuratik ez dela Alkatetza ebazpenik eman. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

KUKU-LORE	85,64
IZADI	152,94
TOLOMENDI	163,95
KUKU-LORE	123,53
KUKU-LORE	53,55
DIONISIO ORMAZABAL	6,75
CALPARSORO INDUSTRIAL	155,41
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	17,57
ULAHÍ	578,33
SOLRED	60,33
ARGITU	163,65
MOVISTAR	60,11
CORREOS	5,83
ICETEC	164,56
ANTONIO ELOSEGUI	49,55
IBERDROLA	36,32
IZFE	1944,78
IZFE	25,59
MOVISTAR	180,34
ACSOL	53,59
ACSOL	84,74
ACSOL	44,44
ACSOL	39,92
ACSOL	319,94



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ACSOL	206,23
BULEGOAK	190,80
ACSOL	431,05
ACSOL	116,06
ACSOL	315,54
OSCAR GALINDO	363,00
IBERDROLA	39,95
EDURNE BENGOA	188,66
ACSOL	38,07
EUSKALTEL	120,14
INFOBIBLIOTECAS	190,90
LYRECO	485,67
QUISER	237,61
KOMUNIKAZIOA BIZIAGOA	156,00

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **7.651,04** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDAL ARTXIBOKO DOKUMENTAZIOA EGUNERATZEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du CONSUELO URTEAGA enpresari Alkizako udal artxiboko dokumentazioa eguneratzeko lanen kontratua esleitzea.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: CONSUELO URTEAGA enpresari, Alkizako udal artxiboko dokumentazioa eguneratzeko egin behar dituen lanen kontratua esleitzea 1.200,00€-tako diru kopuruan (BEZ kanpo).

BOSTGARREN PUNTUA

2020 EKITALDIRAKO LANGILEEN ORDAINSARIEI BURUZKO EUDEL-ek EGINIKO GOMENDIOAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendioa, non ondorengoa dioen:

“2020KO ORDAINSARIEN GEHIKUNTZEI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2/2020 ERREGE LEGE-DEKRETUA

2020ko urtarrilaren 22an, ***2/2020 Errege Lege-dekretua, urtarrilaren 21ekoa***, argitaratu da Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), ***sektore publikoaren esparruko ordainsariei buruzko premiazko neurriak hartzekoa***.

Aipatutako Errege Lege-dekretu horrek sektore publikoko langileen ordainsarien gehikuntzak arautzen ditu 2020. urteari begira, eta, ildo horretatik, soldata igoera finko bat, eta, ekonomiaren hazkundearekin lotuta, ehuneko osagarri bat gehitzea aurreikusten du. Zehazki, sektore publikoaren zerbitzura ari diren langileen gehikuntzak onartzeko ezinbestekoak diren zenbait alderdi arautzen ditu berariaz, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera eraginkorrak izango direnak; modu zehatzagoan, % 2ko igoera finkoa eta funts gehigarrietako % 0,3ko igoera xedatzen ditu; azken horiek, hain justu, produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko plan eta proiektuetarako banatzen direnei dagozkie, eta, administrazio bakoitzean, erakunde sindikalekiko negoziazioekin daude lotuta.

Zehatz-mehatz, hauxe xedatzen du **2/2020 Errege Lege-dekretuak 3.Bi artikuluan**:

Bi. 2020an, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak ezin izango dira gehitu 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenak baino ehuneko bi baino gehiago, homogeneousotasunaren arabera bi aldietarako, langileei dagokienez nahiz haien antzinatasunari begira. Xede horretarako, 2019ko ordainsarietan, BPGd-aren bilakaerari lotutako ehuneko 0,25eko gehikuntza urteko zenbatekotan hartuko da aintzat. Oro har, gizarte-ekintzako gastuek 2020an ezin izango dute izan gehikuntzarik 2019koekiko. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jo da, ez daukatenak zerikusirik egindako lanaren kontraprestazioekin, azken horien xedea zenbait premia asetzea baita, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langile horien gorabehera pertsonalen ondorioz.

Horrez gain, Barne Produktu Gordinaren gehikuntza, 2019ko prezio konstanteetan, ehuneko 2,5era edo gehiagora iritsiko balitz, soldata beste % 1 igoko litzateke 2020ko uztailaren 1etik aurrera. Adierazitako ehuneko 2,5 horretatik beheragoko gorakaden kasuan, gehikuntza proportzioan murriztuzko da, aipatutako ehuneko 2,5 horrekiko izan duen murrizketaren arabera; beraz, hauek izan dira gehikuntzak oro har:

BPGd-a 2,1 bada: % 2,20



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BPGd-a 2,2 bada: % 2,40

BPGd-a 2,3 bada: % 2,60

BPGd-a 2,4 bada: % 2,80

Atal honetan xedatutakoaren ondorioetarako, BPGd-a igotzeari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urte bakoitzean argitaratutako BPGd-aren aurrerapenaren estimazioa hartuko da kontuan. INEk BPGd-aren aurrerapena argitaratu ondoren, eta enplegu publikoa eta lan-baldintzak hobetzeko 2018ko martxoaren 9ko jarraipen-batzordeari jakinarazita, igoera aplikatzea onetsiko da, hala badagokio, Ministro Kontseiluaren erabaki bidez. Erabaki horren berri emango zaie autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udallerri eta Probintzien Espainiako Federazioari.

Gainera, soldata-masaren ehuneko 0,30eko gehikuntza osagarria baimendu ahal izango da, besteak beste, produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko plan eta proiektuak ezartzeko, funtzio parekagarriak dituzten lanpostuen artean dauden osagarri espezifikokoak berrikusteko, destino-osagarriak homologatzeko, edota pentsio-planetako ekarpenetarako.

Aurrekoa kontuan hartuta, 2/2020 Errege Lege-dekretua indarrean sartu ondoren, eta 2018ko eta 2019ko ekitaldietako ordainsarien gehikuntzei dagokienez EUDELek egin izan duenari jarraiki, Euskadiko udalei honako gomendio hau egitea egoki dela deritzo EUDELek, izan daitezkeen interpretazioak argitzen laguntzeko:

GOMENDIOA

- **3.Bi artikuluko lehen paragrafoan** adierazten denari dagokionez, legeak baimendutako maximoa gehitzea langileen ordainsaria, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginkortasunarekin; hau da, 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenekiko **%2**, homogeneotasunaren arabera bi aldietarako, langileei dagokienez nahiz haien antzinasunari begira.
- **3.Bi artikuluko bigarren blokean** zehazten denari lotuta, eta kontuan hartuta Barne Produktu Gordinaren gehikuntza batzuen kasuan soldatak beste % 1 arte igotzeko aukera biltzen duela, gaur egun ez dakigu beteko den premisa hori, eta, ildo horretatik, Ministroen Kontseiluak zehazten eta onesten duena hartuko da kontuan. Dena dela, eta 3.Bi artikuluan xedatzen denarekin bat etorruta, gehikuntza horrek 2020ko uztailearen 1etik aurrera izango du eragina.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- **3.Bi artikuluko azken paragrafoak** soldata-masaren % 0,30eko gehikuntza osagarria egiteko aukera arautzen du, eta, udal-autonomiaren kalterik gabe, honako **gomendio** hau egiten diegu Euskadiko udalei: finantzen eta aurrekontuen esparruan dituzten aukeren neurrian, soldata-masaren % **0,30**eko gehikuntza osagarria onets dezatela. 3.Bi artikuluko horretan jasotzen diren lege-formulen arabera banatuko da zenbateko hori, edo aplikagarri den beste edozein formularen arabera, udal-autonomiaren eta negozioazio kolektiboaren esparruan, betiere.

GOMENDIO honen bidez, lege-agindu horren irismen juridikoa argitu nahi izan du EUDELeK, eta argi erakutsi nahi izan du, gainera, lege-agindu hori legediaren barnean langile publikoentzat modurik onuragarrienean interpretatzeko duen interesa; guztia, erakundeen eraginkortasunean eta lan-ingurunearen kalitatean aurrera egiteko asmoz, horrek guztiak bihar-etzi negozioazio kolektiboaren esparruan aurrera egiteko bidea erraztuko duen ustez, eta UDALHIITZ Akordio Arautzaile berria lortzeko lagungarri izango delakoan, betiere.

EUDELeK argi adierazi nahi izan du berriro zeinen garrantzitsua den “2008-2010 UDALHITZ Akordioa” bere osotasunean betetzea, bermerik handiena lortutako akordioak betetzeak adierazten baitu, zalantzarik gabe; gainera, sektorean akordio berri bat lortzeko legitimazioa ere bada. Zentzu horretan, gaur egungo 2008-2010 UDALHITZ Akordioa betetzerakoan suma zitezkeen gabeziei konponbidea emateko baliabidea litzateke erakunde bakoitzean antolatutako “Jarraipen Mahaia”, azken informazio-orrietan gogorarazi dizuegunaren ildotik. Gogorarazi nahi dizuegu mahai horien xedea, berariaz, egungo 2008-2010 UDALHITZ Akordioan bete gabe utzitako alderdiei konponbidea emateko akordioak egiten laguntzera mugatzen dela, eta ez dutela ireki behar horietatik kanpoko gaiak negoziatzeko prozesurik; azken horien aplikazio-eremua, zehazki, EUDELen eta sindikatuen arteko UDALHITZ Negoziazio Mahai Orokorrean datza.“

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2020 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioaren 1. eta 2.go puntuak bere osotasunean onestea eta aplikatzea. Ondorengoak izanik:

- **3.Bi artikuluko lehen paragrafoan** adierazten denari dagokionez, legeak baimendutako maximoa gehitzea langileen ordainsaria, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginkortasunarekin; hau da, 2019ko abenduaren 31n



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

indarrean zirenekiko %2, homogeneousaren arabera bi aldiatarako, langileei dagokienez nahiz haien antzintasunari begira.

- **3.Bi artikuluko bigarren blokean** zehazten denari lotuta, eta kontuan hartuta Barne Produktu Gordinaren gehikuntza batzuen kasuan soldatak beste % 1 arte igotzeko aukera biltzen duela, gaur egun ez dakigu beteko den premisa hori, eta, ildo horretatik, Ministroen Kontseiluak zehazten eta onesten duena hartuko da kontuan. Dena dela, eta 3.Bi artikuluan xedatzen denarekin bat etorrira, gehikuntza horrek 2020ko uztailaren 1etik aurrera izango du eragina.

BIGARRENA: 2020 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioaren 3. Puntua mahai gainean uztea, gaia hobeto argitu arte.

HIRUGARRENA: Erabaki hau, martxoko nominan aplikatzen hastea, eta urtarrila eta otsailari dagozkion atzerapenak ordaintzea.

SEIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO ATARIARI 2019 URTEAN EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2019ko ekitaldiko memoria eta aurrekontu kudeatua, Talde horrek eta Alkizako Udalak hitzartua duten 2019ko Lankidetzaren hitzarmenean adierazten den modura.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. -k aurkezturiko 2019 ekitaldiko memoria eta aurrekontu kudeatua onestea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO ATARI-ak AURKEZTURIKO 2020 EKITALDIKO HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldeak aurkezturiko Alkizako Udala eta Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. -ren arteko 2020 urterako Lankidetzaren Hitzarmena. Hitzarmenaren helburua, TKT-K eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea izango da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik aipaturiko Lankidetzaren hitzarmenean, Alkizako Udalak, Tolosaldeko Komunikazio Taldeari emango dion diru-laguntza zehazten dela. Alkate-Lehendakari jaunak biztanleko 4€ ematea proposatzen duela.

Gaia aztertutik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldearen eta Alkizako Udalaren arteko Lankidetzaren hitzarmena onestea, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzeko. Hitzarmena 2020 urterako balioa izango du.

BIGARRENA: Inaki Irazabalbeitia Fernandez, Alkizako Udaleko Alkate-Lehendakari jauna ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldeari biztanleko 4€-tako diru ekarpen zuzena ematea, egonkortasun ekonomikoa bermatzeko. Ordainketa, 2020ko udal aurrekontuetako 471.334.00.01 partidaren kargura egingo da.

LAUGARRENA: Aipaturiko gastua onestea.

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldeari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

8.1. TOLOSALDEKO ENERGIA MAHAI KUDEATZEKO TOLOSALDEA GARATZEN IZENDATZEA ETA MAHAIKIDEAK IZENDATZEA

Ikusirik, 2019ko Otsailaren 21ean onartutako 4/2019 Legeak partaidetzan oinarritutako kudeaketa energetikoa eratzea eskatzen diela udalei. Energia alorreko ekintzak proposatu, garatu eta jarraipena emateko helburua izango duen organoa da.

5.000 biztanletik beherako udalek, udalez gaindiko eskualdeko mahaiaren bitartez ordezkatu dezakete kudeaketa organo hori eta eskualdean kokatuta dauden administrazio publikoen koordinazioa, kontsulta, adostasuna eta partaidetza jasotzen dituen organo bat da.

Tolosaldea Garatzen garapen agentziak, 2015 urtez geroztik, dagoeneko Tolosaldeko Energia Mahaia koordinatzen eta dinamizatzen du, 4/2019 legeak eskatzen duen bezala. 2020ko otsailaren 13ko Tolosaldeko Energia Mahaian, mahaiaren funtzionamendu gokia bermatzeko araudia onartu zen.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen S.A.ri ardura ematea Tolosaldeko Energia Mahaia idazkaritza teknikoa, mahai honen funtzionamendu eta garapen egokia bermatzeko.

BIGARRENA: 2020ko otsailaren 13an aurkeztu eta onartutako araudiarekin bat egitea.

LAUGARRENA: Tolosaldeko Energia Mahaian parte hartzeko honako pertsonak izendatzea: Inaki Irazabalbeitia Fernandez, Alkizako Alkate-Lehendakaria eta Alaitz Bilbao Garay, udaleko Ingurumen teknikaria.

BOSTGARRENA: Erabaki hau Tolosaldea Garatzen S.A., Garapen Agentziari jakinaraztea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

9.1.RASDen 44. URTEURRENEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALERAKO PROPOSAMENA

Ikusirik, Tolosaldea Sahararekin elkarteak aurkezturiko Adierazpen instituzionala, non ondorengoa dioen:

“ RASDen 44. URTEURRENEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALERAKO PROPOSAMENA

Egun gutxi barru, 2020ko otsailaren 27an, Saharar Estatu (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa – RASD) sortu zeneko 44. urteurrena ospatuko du Saharar Herriak.

Mendebaldeko Sahara okupatu eta Saharar Herriak borrokan 44 urte eman ondoren, egoera konpondu gabe dago oraindik, eta lurralde okupatuetan bizi diren biztanleek zein Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetan bizi direnek beren giza eskubideak urratuta dituzte, eta Marokoren okupazioaren pean edo errefuxiatu-eremuetan bizitzera behartuta daude.

Testuinguru horretan, Nazio Batuek Fronte Polisarioaren eta Marokoko Erresumaren arteko elkarrizketak desblokeatzeko emandako urratsak (duela zazpi urtetik gora geldirik) zapuztu egin dira idazkari nagusiaren ordezkari berezi Köhler jaunaren dimisioarekin, Marokok etengabeko xantaia eta jarrera intransigentea izan dituelako eta NBEko Segurtasun Kontseiluko kide diren herrialdeek gaiari heldu ez diotelako.

Oso une konplexua da, bide baketsua mehatxatzen duena, saharar herriaren eta Fronte Polisarioaren pazientzia ahuldu nahi duena, eta egintza burutuen



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

politika bat inposatu nahi duena. Egoera hori ez dator bat Europako Justizia Auzitegiaren epaiarekin. Epai horren arabera, "Marokoko Erresumak Mendebaldeko Sahararekiko duen subiranotasuna ez du aitortzen ez Europar Batasunak, ez haren estatu kideek, ezeta, oro har, NBEk ere".

Marokoko Erresumak aldebakarrekotasunez bere itsas eremua mugatzen duten bi lege parlamentario onartzea sustatu du; horrekin, NBEren Itsasoko Zuzenbideari buruzko Konbentzioan ezarritakoa urratu du, eta jurisdikzio-urak bere ur-eremuen 12 miliatara, Eremu Ekonomiko Esklusiboko 200 miliatara eta Plataforma kontinentaleko 350 miliatara zabaldu ditu, kontuan izanik arau horrek Nazioarteko Zuzenbidea urratzen duela eta bereziki larria dela Mendebaldeko Saharako Lurralde Itsasoa barne hartzean.

Erabaki horrek ezegonkortasun- eta probokazio-faktore bat gehiago sartzen du Mendebaldeko Saharako gatazkan, eta ez ditu kontuan hartzen sahararrek beren lurraldean aitortuta dituzten eskubide legitimoak, eta, gainera, areagotu egiten da beren aberastasunak eta baliabide naturalak espoliatuta.

Gaur irekitzen den zikloan, herrialde okupatzaileak, Marokok, nazioarteko zuzenbidearekiko burutzen dituen ageriko urraketen aurrean eta Marokorekin dagoen kolaborazio politiko eta ekonomikoaren aurrean ezer ez egitea ez daiteke zigorrik gabe geratu. Gaur, inoiz baino gehiago, Espainiari eta Europako Batasunari gatazkan dituzten erantzukizunei aurre egiteko eskatzeko unea da. Bereziki estatu espainiarrari dagokionez, deskolonizazioaren zain dagoen Afrikako azken lurraldearen, Mendebaldeko Sahararen, herrialde administratzailea baita.

Halaber, oso beharrezkoa da oraindik ere hainbat misio instituzionalen lana, okupatutako lurraldeetan saharar biztanleekiko adierazpen-, bilera-, elkartze- eta manifestazio-eskubideen urraketa larriak egiaztatzeke, eta Nazio Batuen ebazpenak eta giza eskubideen errespetua bete daitezen exijitzeko.

Horregatik guztiagatik:

BERRESTEN DUGU Fronte Polisarioa dela saharar herriaren ordezkari zilegi eta bakarra, NBEk eta nazioarteak horrela aitortuta.

SALATZEN DUGU, berriro ere, Marokok Mendebaldeko Saharan duen presentzia legez kanpoko dela, eta ezin duela Saharar Herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubidea kaltetzen duen ondorio juridiko edo politikorik izan.

Egiaztatzen dugu Mendebaldeko Sahara Nazioarteko Zuzenbidearen mende dagoen lurralde ez-autonomia dela, eta ez dela inoiz Marokoko Erresumakoa izan. Horregatik, Mendebaldeko Sahararen legez kanpoko okupazioa eteteko, eta Saharar Herriak autodeterminaziorako duen eskubidea gauzatzeko exijitzen diogu.

*Espainia Mendebaldeko Sahararen "zuzenbidezko potentzia administratzaile" dela adieraziz Auzitegi Nazionalak emandako autoa erreferentzia dela **IRIZTEN DIOGU**.*

EXIJITZEN DIOGU Marokoko Erresumari saharar preso politikoak eta kontzientzia-presoa berehala askatzea, eta kontrolatzen dituen espetxeetan



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

giza eskubideen urraketak bertan behera uztea, eta presoan osotasun fisiko eta psikikoa bermatzea. Eta preso horien familiekiko elkartasuna helaraztea.

GUZTIZ GAITZESTEN DUGU Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharari zuzenean eragiten dioten uretan bere itsas eremua ezartzeko hartutako alde bakarreko erabakia; izan ere, erabaki horrek NBERen Itsasoaren Eskubideei buruzko Konbentzioan adierazitakoa, Marokok onartua, urratzen du.

SALATZEN DUGU Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharan baliabide naturalez egindako espoliazioa, nahiz eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak horren inguruko epaiak eman dituen, eta inguru horretan diharduten enpresei nazioarteko zuzenbidea eta Saharako herritarren eskubideak errespetatzeko exijitzen diegu. Interesdunei (enpresei eta herrialdeei) Saharako Herriaren ordezkari legitimoekin (Fronte Polisarioa) negoziazioak hasteko eskatzen diegu.

ESKATZEN DIEGU Nazio Batuei Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide justu eta behin betikoa luzamendu gehiagorik gabe susta dezatela. Konponbide hori gauzatzeko, Saharako Herriaren autodeterminazio-eskubidea gauzatu behar da erreferendum bidez. Eta, halaber, NBERen Genevako Giza Eskubideen Kontseiluari eskatzen diogu Mendebaldeko Sahararako Giza Eskubideen errelatore bat izenda dezala.

BERRIRO ESKATZEN DUGU, Mendebaldeko Saharan bizi den egoera larria ikusita, MINURSOk Mendebaldeko Saharan dituen funtzioak eta zereginak zabaldu behar dituela. Horregatik, Nazio Batuei **ESKATZEN DIEGU** Misiolari ahalmena eman diezaiola Marokok okupatutako lurraldeetan sahararren giza eskubideak zaintzeko eta babesteko.

EXIJITZEN DIOGU Europar Batasunari bete dezala Marokoko Erresumarekin adostutako Lehentasunezko Akordioan ezarritako giza eskubideak errespetatzeko klausula.

Saharako Emakumeen Batasun Nazionalarekin (UNMS) dugun lankidetzaren politikoa **INDARTZEN DUGU**, errefuxiatuen kanpamentuetan duten funtsezko eginkizun erabakigarriagatik. Eta, aldi berean, emakume horien ikusezintasun-egoerari buruzko deia egiten dugu, giza eskubideen urraketaren biktima izan diren eta Marokok okupatutako lurraldeetan desagertutako emakumeei aipamen berezia eginez.

ESKATZEN DIEGU Euskal erakunde publikoei jarrai dezatela ematen eta areagotu dezatela laguntza solidario eta humanitarioa, bai Tindufeko kanpamentuetan errefuxiatutako biztanleei, bai lurralde okupatutako sahararrei.

Espainiako Estatuak Mendebaldeko Saharako egoerarekin duen erantzukizun legal eta politikoaz jabetuta, Espainiako Gobernuari dei egiten diogu hauetarako:

1.- Madrilgo Akordioak erabat deusez **DEKLARATU DITZALA**, eta deklarazio horrekin bat etorritik, Saharako Herriak autodeterminaziorako duen eskubide legitimoa defendatzeko beharrezkoak diren ekimen politiko guztiak susta ditzala.

Espainiako Estatuak ofizialki aitortzen du Madrilgo Akordioak, 1975eko azaroaren 14an sinatuak, ez zuela transferitu lurraldearen gaineko



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

subiranotasuna, eta sinatzaileetako bakar bati ere ez ziola eman herrialde administratzailearen izaera; Espainiak, berez, ezin du alde bakarretik transferitu izaera hori. Beraz, ez du eraginik izango Mendebaldeko Sahara deskolonizatzeko zain dagoen lurralde ez-autonomo gisa duen nazioarteko izaeran.

*2.- Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkartzari estatus diplomatikoa **EMATEKO**, Saharar Herriaren ordezkari bakarra eta legitimoa den aldetik, NBEk horrela onartuta. Halaber, RASD aitortzea.*

3.- Saharako errefuxiatuen kanpamentuetako egoera humanitario larria dela eta, lankidetzeta eta laguntza humanitarioa areagotu dezala, bai errefuxiatuen kanpamentuetan, bai lurralde liberatuetan, kezka ikusten baita Espainiako Lankidetzeta Agentziak azken urteotan egindako ekarpenak murriztu izana. Era berean, Mendebaldeko Sahararentzako Europako funtsak gehitu behar direla azpimarratu behar da.

*4.- **DEKLARA DEZALA** enpresa publiko eta pribatuek nahitaez errespetatu eta aplikatu behar dituztela Mendebaldeko Saharako lurraldean, itsasoan eta lehorrean baliabide naturalak esploratzeko eta ustiatzeko oinarria ezartzen duten EBko Justizia Auzitegiaren epaiak; esplorazio eta ustiaketa hori Saharar Herriarekin adostu behar dira.*

*5.- **EXIJI DIEZAIOLA** Marokoko Erresumari Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan giza eskubideak zorrotz errespetatzea eta sahararrek jasaten dituzten eskubide-uraketak etetea. Eta, halaber, eskatzen diogu aktiboki lan egin dezala, Nazio Batuen eta Europar Batasunaren barruan, MINURSOk bere eginkizunak Mendebaldeko Sahararen giza eskubideak betetzen direla zaintzera eta babestera ere zabal ditzan.*

Azkenik, euskal gizartearen zereginari dagokionez, honako hau adierazi nahi dugu:

ESKERRAK eman nahi dizkiegu Saharar Herriarekiko adiskidetasunak elkartuta egunez egun lan egiten duten elkarte eta kolektibo solidario eta sozialei, horien helburu bakarra Saharako herri anaiarentzat etorkizun aske bat lortzea baita.

AITORTZEN DUGU haurrei bideratutako "oporrak bakean" harrera-programaren funtsezko garrantzia, Saharako eta Euskal Herriko familien arteko elkartasunaren eta maitasun- eta hurbiltasun-harremanen adierazle nagusia. “

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, erabakitzen du, Tolosaldea Sahararekin elkarteak aurkezturiko adierazpen instituzionala bere osotasunean onestea.

9.2.ALKIZAKO ABERTZALE EZKERTIARRAK AURKEZTURIKO MOZIOA: OSASUN PUBLIKOA ORAIN, TOLOSALDEAK ERABAKI

Ikusirik, Alkizako Abertzale Ezkertiarrak aurkezturiko mozioa, non ondorengo dioen:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

“OSASUN PUBLIKOA ORAIN TOLOSALDEAK ERABAKI

Osasun-arretari dagokionez, urteetako gabezia dago Tolosaldean. Gipuzkoan, Tolosaldea da ospitale publikorik ez duen eskualde bakarra eta, datuek erakusten dutenez, kalitatezko osasun-arreta bermatzeko, ezinbestekoa da sare publikoan egotea, hots, kudeaketa publikoa izatea. Tolosaldean ere osasungintza publikoa, unibertsala, doakoa eta euskalduna bermatu behar da.

Eskualdearen diagnostiko sozio-sanitarioa zein azterketa soziodemografikoa egitea pausu beharrezkoa da Tolosaldeak behar duen ospitalean ezaugarriak definitzeko. Alabaina, azterketa hori Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak lideratu behar badu ere, ez da soilik bere ardura eta eskualdeko eragile politiko eta sozialekin elkarlanean burutzekoa da. Prozesu horren bidez, eskualdeko osasun-beharrak aztertuko lirateke, aditu-taldeek eta gizarte-eragileek elkarlanean, eskualdeak behar duen osasun-arreta zehazteko aukera izango lukete. Eusko Jaurlaritzarena da halako prozesu bat abiarazteko eskumena eta, beraz, Alkizako udalak honokoa onartzen du:

1.- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari eskatzea Tolosaldean partaidetza-prozesu bat martxan jartzea, eskualdeak behar duen osasun-arreta publiko integralaren diseinua zehazteko non eragile politikoek eta sozialek ere parte izan behar duten.

2.- Alkizako udalak, bere baliabide ekonomikoek eta pertsonalek ahalbidetzen dioten neurrian, konpromisoa hartzen du prozesu horretan parte hartzeko eta alkizarrak haren bilakaeraz etengabe informatzeko.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, erabakitzen du, Alkizako Abertzale Ezkertiarrak aurkezturiko “Osasun publikoa orain, Tolosaldeak erabaki” mozioa bere osotasunean onesten du.

9.3.ALKIZAKO ABERTZALE EZKERTIARRAK AURKEZTURIKO M8ko ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN ONESPENA, HALA BADA.

Ikusirik, Alkizako Abertzale Ezkertiarrak aurkezturiko M8ko Adierazpen instituzionala, Emakumeen Nazioarteko eguna dela eta....., non ondorengoa dioen:

**“M8ko Adierazpen Instituzionalaren eredia Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta
EMAKUMEEN MOBILIZAZIOAK. Mundua eraldatzen duen emakumeen boterea.**

1952an martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna ezarri zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak (NBE). M8ak emakumeen "grebak" oroitzen ditu, historian zehar euren eskubide laboral, ekonomiko, politiko eta sozialak



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

aldarrikatu dituztenak. Borrokek aldaketak ekarri dituzte legetan, gizartean eta kulturaren, eta gizarteak berdintasun- eta demokrazia-maila handiagotarantz aurreratu dituzte.

Hala ere, emakumeen borroken garaia ez da amaitu. Mundu osoan eta gure tokiko komunitateetan oraindik ere emakumeenganako bereizkeriak eta ezberdintasunak daude, emakume izate hutsagatik. Bereizkeria hori beste batzuekin gurutzatzen da: klase, etnia, adina, kultura, sinesmenak, migrazio-estatusa, sexu-orientazioa, genero-identitatea edo gaitasunak, besteak beste.

Pekin Ekintza Plataformak 25 urte bete dituenean, belaunaldi berriak bat egiten du giza eskubideak defendatu eta genero-berdintasuna lortuko duten ekonomia, gizarte eta sistema politikoak irudikatzeko borrokan, inor bazterrean utzi gabe. Munduko mugimendu honen ustez generoen arteko berdintasuna ez da soilik oinarritzko giza eskubidea, baizik eta mundu baketsu, oparo eta iraunkorra lortzeko beharrezko oinarria. Garapen Jasangarrirako Helburuetan jasotzen den bezala. **Berdintasuna gizarte osoaren mezu bakar gisa aldarrikatzeko garaia da.**

Emakumeen borrokek eta kaleetako mobilizazioek instituzioei **konpromiso** irmoko ariketa egitea eskatzen digute:

- Genero-harremanak eraldatzea gure udalerrien eta gure administrazioen bizitzan;
- Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak errotik kentzea eta egiturazko indarkeria horren biktimak erreparatzea;
- Baldintzak eta aukerak eraikitzea izaera guztietako emakumeek tokiko bizitzako ekonomian, gizartean, politikan eta kulturaren parte hartzeko;
- Diskriminazio mota guztien aurka borrokatzea;
- Bizitza erdira ekarriko duten gizarte-antolakuntza erantzunkideak diseinatzea.

Tokiko euskal gobernuok konpromiso horiek gure herri eta hirietan egia bihurtzeko politikak diseinatu eta kudeatu behar ditugu, eta horrexegatik, Alkizako Udalak **konpromiso irmoa adierazi du berdintasuneko gizarte inklusiboa eraikitzen laguntzeko, pertsona guztien eskubideak eta parte-hartzea bermatuko dituen tokiko bizitzan**, honako neurri hauek abian jarririk.

Toki-eremuan berdintasunaren konpromisoan aurrera egiteko neurri posibleak:

- Udalerriko emakumeen baldintzak eta egoerak sistematikoki aztertzea baliabide, ondasun eta zerbitzu guztiak eskuratzeari dagokionez, bai eta tokiko bizitzan parte hartzeari dagokionez ere, desberdintasunak identifikatu eta zuzentzeko.
- Tokiko berdintasun-politikak bultzatzeko baliabide nahikoak dituen egitura egonkorra edukitzeko urratsak egitea Tolosaldeko Emakumearen Etxea proiektua bultzatuz.
- Tokiko arauak arian-arian artikulatzea berdintasun-politikak garatzeko, eta udal-jarduera osoan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- Tokiko jardueretan indarkeria matxistaren biktimei erreparazioa emateko printzipioaren aplikazioan aurrera egitea.
- Udaleko arau, programa eta zerbitzuen genero-eraginaren ebaluazioa arian-arian garatzea.
- Udalerriko emakumeak ahalduntzeko programak eta ekimenak garatzeko espazioak eta baliabideak eskaintzea.
- Toki-mailan, emakumeen erakundeekin eta erakunde feministekin etengabe komunikatzeko espazioak antolatzea.

Azkenean, Udal honek dei egiten die herritarrei Emakumeen Nazioarteko Egunaren kariatara Mugimendu Feministak martxoaren 8rako antolatu dituen mobilizazioetan era aktiboan parte har dezaten.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, erabakitzen du, Alkizako Abertzale Ezkertiarrak aurkezturiko “Emakumeen Nazioarteko eguna dela eta M8ko Adierazpen instituzionala” bere osotasunean onesten du.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 16.10 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

IDAZKARIAK